

Koldo Mitxelena ez dela galduko dio Aldundiak

Azpiegiturak PPk egindako galdera bati erantzun dio Maria Jesus Aranburu kultura diputatuak.

Erredakzioa

Batzar Nagusietako plenoan Maria Jesus Aranburu Kultura diputatuak atzo esan zuenez, Koldo Mitxelena Kulturuneko liburutegiaren erabiltzaileek ez dute inolako murrizketarik izango beren zerbitzuetan, Euskadiko Liburutegi Nazionala bertan jartzen denean. Kultura diputatuak PPko Iñigo Arcauzek egindako galderari erantzun zion Batzar Nagusietako plenoan. PPko batzarkidearen arabera, Aldundiko Liburutegia galtzearen arriskuaren aurrean, gure alderdiak duen kezka azaldu nahi izan dugu galdera honen bitartez.

Maria Jesus Aranburuk garbi utzi nahi izan zuen zerbitzuak ez direla murriztuko. Eraikinak izango duen funtzio aldaketak ez du zerbitzuaren murrizketa izango denik esan nahi. Nahiz eta Koldo Mitxelena liburutegiko fondoekin zer egingo duten ez zuen zehaztu, Gipuzkoan, eta Donostian etorkizun hurbilean liburutegi berrien eskaintza zabala izango dela nabarmendu zuen. EHUrekin egingo dugun Karlos Santamaria zentruan 1.200 irakurketa postu izango dira 800 metro karratutan 2010. urterako. Tabakalerako mediatekak 3.000 metro karratu izango ditu eta 2013rako bukatuko dute eta Euskal Liburutegi Nazionalak ere aukera emango die erabiltzaileei kontsultak egiteko. Kultura diputatuak gezurtatu egin du Euskal Liburutegi Nazionalako erabiltzaileak ikerlariak soilik izango direnik. Herritar guztiei irekitako gunea izango da.